



ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 03/04-08 AKORDIOA, 2008KO APIRILAREN 3KOA, HAURRESKOLAK PARTZUERGO PUBLIKOKO BITARTEKO PLAZAK BETETZEKO ETA HEZITZAILEAK ORDEZKATZEKO ZERRENDARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA ETA ZERBITZUAK BERRIRO BAREMATZEN DITUENA.

LEHENENGOA: HELBURUA

- 1.1. Deialdiaren helburua hautagaien zerrenda bakarra egitea da, HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoko behin-behineko lanpostuak betetzeko eta hezitzaileak ordezkatzeko, eta zerbitzuak berriro barematzea.
- 1.2. Instrukzio hauen plangintza orokorrean, honako irizpide hauek hartu dira aintzat:
 - a) HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoaren eskakizunei erantzungo dien zerbitzu bat ematea, pertsonal hezitzailearen postuak kalitate- eta eraginkortasun-bermeaz betetzeari dagokionez.
 - b) Hautagaien zerrenda bakarra egitea.
 - c) Hautagaiei aldi baterako lan-kontratua egitea.
 - d) Zerrenda bakar horrekin, kontratupeko lan-pertsonalaren ordezkapenak kudeatzea.

Instrukzio hauen bidez, bi helburu lortu nahi dira: alde batetik, zerrenda hori kudeatzeko zer elementu behar diren zehaztea (sartzeko eskakizun orokorrak, baremazio-irizpideak eta baldintza orokorrak, funtzionamendua...) eta, beste batetik, hautagaien zerrenda horren kudeaketa erraztea, eraginkorragoa eta bateratuagoa izan dadin.

BIGARRENA: KONTRATAZIO-BALDINTZA OROKORRAK.

- 2.1. Kontratututako pertsonalak aldi baterako lan-kontratua sinatuko du HAURRESKOLAK Partzuergoarekin.
- 2.2. Alta egin eta, beharrezkoa izanez gero, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko zaie, erregimen horretan aurreikusitako babesaren pean, lan-harremana hasten den egunetik aurrera.
- 2.3. Lanaldi osoko postuen ordainsariak, eta haiekiko baliokideak diren lanaldi erdiarenak, indarrean dagoen akordioaren araberakoak izango dira.

HIRUGARRENA: HAUTAGAI EK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK.

3.1. Hautagai ek 3.2. puntuan adierazitako eskakizunak bete behar dituzte, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenago.

3.2. Hauek dira deialdian parte hartu ahal izateko eskakizun orokorrak:

- a) Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea edo, Europar Batasunak izenpetutako eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraituz, langileen joan-etorri askea baimenduta duen estatu bateko herritarra izatea.

Parte hartzeko aukera izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek eta, Europar Batasunak izenpetutako eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraituz, langileen joan-etorri askea baimenduta duen estatu bateko herritar direnen ezkontideek, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude; parte hartzeko aukera izango dute haien ondorengoek eta haien ezkontideenek ere, baldin eta ondorengoek hogeita bat urte baino gutxiago badute edota, zaharragoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Espainiar Estatuan bizi badira. Horretarako, administrazio-baimena dutela frogatu beharko dute, kontratuan xedatutako jarduera egin ahal izateko.

- b) Hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroko adina ez izatea.
- c) Gaixotasunik ez izatea edo horretarako mugapen fisiko zein psikikorik ez izatea.
- d) Hezitzailearen funtzioak arazorik gabe betetzeko beharrezko gaitasun psikofisikoa izatea.
- e) Hutsegite larria edo hutsegite oso larria egiteagatik edozein Administrazio Publikoren diziplinako espedientearen zigorrik jaso ez izatea, eta zerbitzutik bereizita edo eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea. Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sartuta ez egotea; bateraezintasunen kasuan, hala ere, ez da eragozpen izango interesatuak aukera egin dezan.

LAUGARRENA: PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAKIZUN OROKORRAK.

4.1. Titulu akademikoak:

HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoko postuetarako hautagaien zerrendan sartzeko, ezinbestekoa izango da honako tituluren bat izatea, edo tituluaren agiria izateko eskubideak ordainduta izatea: Maisu-maistra titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea, edo horren baliokidea, irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren (94/11/17ko BOE) eta berariazko araudiaren arabera; Haur Hezkuntzako goi-teknikariaren titulua, edo horren baliokidea, apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuaren (98/05/8ko BOE) eta berariazko araudiaren arabera; edo Haurtzaindegiko teknikari espezializatuaren titulua edo dagokion gaikuntza gaindituta izatea, 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduaren arabera (96/01/23ko BOE), horren bidez homologatu baitira Haur Hezkuntza, Lehen

Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzako espezializazio-ikastaroak, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko profesionalentzako gaikuntza-ikastaroak.

Ez da baliozkoa izango Hezitzaileen Homologazio Ikastaroa EAEko landaguneetako (Europako Batzordeko 2001eko martxoaren 14ko Erabakian zehaztuak) 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur-eskoletan eta/edo landaguneetako Hezkuntza eta Asistentzia Zerbitzuetan egin izana.

Eskatutako tituluren baten akreditaziorik ez duten edo titularen agiria izateko eskubideak ordainduta ez dituzten eskaerak ez dira kontuan hartuko.

Titulu akademikoak konpultsatutako fotokopien bidez egiaztatu beharko dira, edo dokumentuaren originala eta fotokopia aurkeztuta, erkatu ahal izateko.

4.2. Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna, EGA edo antzekoa izatea (informazio gehiagorako, ikus 263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, 1998ko urriko 23ko 202. EHAAn).

Euskara-titulua konpultsatutako fotokopien bidez egiaztatu beharko da, edo dokumentuaren originala eta fotokopia aurkeztuta, erkatu ahal izateko.

Aurretik adierazitako bi eskakizunak (titulu akademikoak eta Euskara-titulua) bete beharrekoak izango dira zerrendetan sartu nahi duten hautagai guztientzat, zerrendak irekitzen direnean, eta eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako izan beharko dituzte.

BOSGARRENA: BAREMAZIO-IRIZPIDEAK ETA FROGATZEKO DOKUMENTUAK.

Xedapen honetan ezarritako baremazio-irizpideak deialdi honetan bakarrik aplikatuko dira, eta ez dute atzeraeragineko ondorioz izango.

5.1.- Pertsonal berria eta lehenago ez barematutako pertsonala:

Pertsonal berria hautatzeko edo lehenago ez barematutako pertsonalaren (2007ko otsailaren 12ko zerrendetatik datozenen) baremazioa egiteko, honako baremo honi jarraituko zaio:

5.1.1.- Esperientzia.

a) Haurreskolak Partzuergoko zentroetan hezitzaile gisa emandako zerbitzuak: 0,01 puntu, lan egindako egun bakoitzeko.

Lanaldi-erdiko erregimenean emandako zerbitzuak lanaldi osoko zerbitzuen puntu berekin barematuko dira.

b) 2006/2007ko ikasturtean zehar Haurreskolak Partzuergoan gutxienez 165 egunez lan egin duten ordezkoez eskubidea izango dute 0,31 puntu gehitzeko.

c) Haur Hezkuntzako zentroetan edo haurtzaindegietan Haur Hezkuntzako hezitzaile gisa, Haur Hezkuntzako maisu-maistra gisa edo antzeko eginkizunetan emandako zerbitzuak: 0,15 puntu 3 hilabeteko aldi bakoitzeko (gehienez, 4 puntu). Ez dira aintzat hartuko 3 hilabetetik beherako epeak baremazio honetan. Baremazio honetan zenbatzen ez diren 3 hilabetetik beherako epeak antzeko

beste epe batzuei metatu ahal izango zaizkie hurrengo baremazioetan, deialdien arabera epe horiek ere zenbatzen badira.

Xede horretarako, 90 eguneko aldia hartuko da hiruhilekotzat.

Data berean zerbitzuak bi zentrotan edo gehiagotan eman izanez gero, puntuaziorik aldekoena soilik hartuko da aintzat.

Birbarematzeko epean (2007/02/02tik 2008/04/07ra) Haurreskolak Partzuergoko zentroetan emandako zerbitzuak ofizioz barematuko dira, eskaerak aurkezteko epea amaitzean Partzuergoko zerrendan jarraitzen duten hezitzaileen kasuan.

Partzuergokoak ez diren zentroetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, eskaerak aurkezteko epea hasten denerako eguneratutako **lan-bizitzaren agiria** eta **enpresa kontratatzailearen ziurtagiria (ez da kontraturik onartuko)** aurkeztu beharko dira; enpresaren ziurtagiriak dagokion hautagaiak Haur Hezkuntzako eginkizunak hezitzaile kategoriarekin egin dituela egiaztatuko du. Partzuergokoak ez diren zentroetako esperientzia egiaztatzeko eskatutako bi dokumentuak (lan-bizitzaren agiria eta enpresaren ziurtagiria) aurkezten ez dituzten hautagaiei ez zaizkie zentro horietako esperientziari dagozkion puntuak kontuan hartuko.

5.1.2.- Titulu akademikoa.

- a) Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-maistra.....**2 puntu**
- b) Edozein espezialitateko eta Haur Hezkuntzarako gaitutako maisu-maistra..... **2 puntu**
- c) Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria..... **2 puntu**
- d) Haurtzaindegiko teknikari espezialista..... **2 puntu**
- e) Gaikuntza/Habilitazioa..... **2 puntu**

EAEko landa-guneetako (Europako Batzordeko 2001eko martxoaren 14ko Erabakian zehaztuak) 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur-eskoletan eta/edo landa-guneetako Hezkuntza eta Asistentzia Zerbitzuetan egindako Hezitzaileen Homologazio Ikastaroa ez da puntuagarria izango.

- f) Horrez gain, honako lizentziatura hauetakoren bat duten hautagaiei **puntu bat** gehiago emango zaie, lizentziatura konputagarri bakoitzeko: Psikologia, Pedagogia eta Psikopedagogia. Magisteritzako espezialitatearen bat duten hautagaiei **0,5 puntu** gehiago emango zaie, diplomatura konputagarri bakoitzeko.

5.1.2. atalaren bidez, 3 puntu lor daitezke, gehienez.

5.1.3.- Eskatutako tituluen ikasketa-ziurtagiria (4.1. atala)

Hezitzaile batek bi titulu izanez gero (Haur Hezkuntzako Maisu-maistra, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria edo Haurtzaindegiko Teknikari Espezialista), puntu-kopuru gehien ematen duen ikasketa-ziurtagiria hartuko da titulu-eskakizuntzat.

Ikasketa-ziurtagirian espedienteko batez besteko nota adierazten bada, horixe hartuko da, edozein kasutan. Espedienteko batez besteko nota ez bada agertzen,

eta irakasgai bakoitzeko kalifikazioa idatziz adierazita badago, honako baliokidetasun hauek aplikatuko dira.

Ohorezko matrikula – 10, Bikain – 9.5, Oso ongi – 8, Ongi – 6.5, Nahiko, Baliozkotuta, Gai – 5.5

Batez besteko notaren eta taula honen arabera, nota bakoitzari dagokion puntuazioa esleituko da.

9 eta 10 bitartean.....	1 puntu
7 eta 8.999 bitartean	0.75 puntu
6 eta 6.999 bitartean	0.50 puntu
5 eta 5.999 bitartean	0.25 puntu

Ikasketa-ziurtagiri pertsonala aurkeztu ezean eta, horren ordean, tituluaren edo tituluaren agiria izateko eskubideen ordainagiriaren fotokopia konpultsatua aurkezten bada, nahikotzat hartuko da hautagaiaren batez besteko nota.

5.2.- Birbarematzioa:

Halaber, Partzuergoan lan egiten ari diren eta aurreko deialditik ondorioztatutako azken zerrendan dauden hezitzaileek (aurreko deialdi batean barematuta izan diren hautagaiek) zerrenda berria jarraituko dute, aurreko zerrendan zeuzkaten puntuekin. Birbarematzeko epean (2007/02/02tik 2008/04/07ra) Partzuergoko zentroetan emandako zerbitzuak ofizioz barematuko dira. Hezitzaile horiek beste haur-eskola batzuetan emandako zerbitzuak birbarematzeko edo hurrengo atalean ezarritako epean lortutako titulazio konputagarri berria eransteko eskatu ahal izango dute. Esperientzia berria (barematzeko epean) eta titulu berriak 5.1.1. eta 5.1.2. ataletan ezarritako irizpideen arabera barematuko dira.

5.3.- Langile historikoak:

Hirugarren xedapenaren arabera zerrendara sartzeko bete beharreko baldintzak betetzen dituzten langileak, zentro historikoetatik etorritakoak eta zerrendan ez daudenak, langile berriztat hartuko dira zerrendan sartzen direnean (5.1. atala)

5.4.- Lanaldi eta lurralde aukerei buruzko aldaketak.

Zerrendako hautagai guztiek, bai dagoeneko barematuta izan direnek baita inoiz barematuak izan ez direnek ere (2007ko otsailaren 12tik izena eman dutenek) eskabideak aurkezteko emandako epean, egun Partzuergoan lanaldi eta lurralde aukerei buruz dauden datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute. Epe hori amaituta, prozesu honetatik sortutako zerrendako hautagai guztiek (lehenago aipatutakoek eta hautagai berriek) ezin izango dituzte datu hauek aldatu hurrengo barematzioa izan arte.

SEIGARRENA: ZERRENDAK EGITEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

6.1. Prozedura.

6.1.1. Eskaerak aurkezteko lekua: Haurreskolak Partzuergoaren egoitza

6.1.2.Epeak: eskaerak aurkezteko, apirilaren 7tik 17ra bitartean, biak barne.

6.1.3. Aurkezteko modua: eskaerak erantsitako dokumentuan aurkeztu eta agirien **bina ale** eman beharko dira.

6.2. Baldintza orokorrak: hautagaien zerrenda bakarra egingo da.

6.3. Puntuazio bakarra eta hautagaien ordena.

Puntuazioa instrukzio hauetan adierazitako baremoa ezarrita lortu ondoren, puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuko dira hautagaiak, zerrenden barruan.

6.4. Puntuazio-berdinketak hausteko irizpideak.

Puntuazioen guztizkoan berdinketaren bat gertatuz gero, honako hauek kontuan hartuta desegingo da:

- 5.1. atal osoaren puntu-kopururik handiena.
- Berdinketak jarraituz gero, 5.1.1.a) ataleko puntuaziorik handiena hartuko da)
- Berdinketak jarraituko balu, 5.1.2. ataleko puntuaziorik handiena hartuko da.
- 5.1.3. atalean eskatutako tituluen ikasketa-ziurtagiria.

Horren guztiaren ondoren, berdinketak iraungo balu, hura hausteko azken irizpide gisa, abizenen eta izenaren ordena alfabetikoa erabiliko da. Letra bat zozketatuko da, horretatik aurrera puntuazio bera duten hautagaiak alfabetikoki ordenatzeko.

Irizpide horiek egungo baremazioan gertatutako berdinketak hausteko erabiliko dira.

6.5. Denbora-iraunaldia.

Deialdi honetatik ondorioztatzen den zerrenda bateratuak aurreko deialdiaren ondorengo zerrenda ordezkatzeko du (zerrenda hartan zeuden hautagaiak eta egun Partzuergoan lanean ari direnek zerrenda berrian jarraituko dute).

2007ko otsailaren 12tik, irekita dago hautagai berrien zerrenda. Hautagai horiek barematu gabe eta zero punturekin hasi dira. Eskaerak eta dokumentazioa zuzen aurkeztutako ordenan daude. Hautagai horiek automatikoki sartuko dira zerrenda berrian, eskaerak aurkezteko epearen azken egunetik aurrera, baina zero punturekin sartuko dira. Horrenbestez, baloratzea nahi duten meritu guztien (tituluak, ziurtagiri akademikoa, beste zentro batzuetako esperientzia...) baremazioa 5.1. puntuaren arabera eskatu beharko dute, eta horretarako eskatutako dokumentuak aurkeztu. Partzuergoan barematzeko epean emandako zerbitzuak ofizioz zenbatuko zaizkie.

Eskaerak aurkezteko epearen azken egunaren biharamunetik aurrera, berriro irekiko da zerrenda, hautagai berriak aurkez daitezten. Zerrenda hori eskaeren eta dokumentazioaren aurkezpen zuzenaren arabera ordenatuko da, eta hurrengo baremazioan barematuko dira, gainerako hautagaiekin batera.

Maite Larrañaga Orbea
Partzuergoko Idazkaria

Jose Antonio Campos Granados
Partzuergoko Lehendakaria



1. ERANSKINA: ZERRENDAN SARTZEKO ESKAERA (PERTSONAL BERRIA/ LEHENAGO EZ BAREMATUTAKOA)

HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoan lanpostuak eta ordezkapenak aldi baterako betetzeko deialdia

1. Datu pertsonalak

ABIZENAK		IZENA	
NAN	Bi aldeen fotokopia	Zk.	
JAIOTZE-DATA		Tel	
HELBIDEA		Sakel.	
HERRIA		LURRALDEA	
PK			

2. **Lurraldea:** bat baino gehiago markatzeko aukera dago.
3. **Lanaldia:** bi aukerak markatzen badira eta lanaldi-erdiko postua edo ordezkapena eskainiz gero, eskaintza onartu beharra dago.

	LANALDI OSOA	LANALDI PARTZIALA
ARABA		
BIZKAIA		
GIPUZKOA		

4. Eskakizunak: Markatu gurutze batez

Haur Hezkuntzako Maisu-maistra	
Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria	
Hautzaindegiko Teknikari Espezialista	
Homologazioa/Gaikuntza	

hizkuntza-eskakizuna	Bai	
----------------------	------------	--

5. **Baremoa. Lan-esperientzia:** Haur Hezkuntzako lan-esperientzia soilik hartuko da kontuan.
b) kasuan, erantsi ziurtagiria

A) Partzuergoan		B) Bestelako zentroetan	
EGUNAK		EGUNAK	HIRUHILEKOAK

6. **Titulu akademikoa:** Markatu gurutze batez. Erantsi kopia konpultsatua. 3 puntu, gehienez

Haur Hezkuntzako Maisu-maistra	
Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria	
Hautzaindegiko Teknikari Espezialista	
Gaikuntza/Homologazioa	
Psikologoa	
Pedagogoa	
Psikopedagogoa	
Magisteritzako beste espezialitate bat	

Espediente akademikoa: Erantsi fotokopia konpultsatua

GUZTIRA	
----------------	--

Data eta sinadura



DOCUMENTACIÓN PRESENTADA / AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Nombre y apellidos/ Izen-abizenak

- | | |
|--|--------------------------|
| Datu Pertsonalak / Datos Personales (NAN-DNI) | <input type="checkbox"/> |
| Titulazio akademikoa/ Titulación académica | <input type="checkbox"/> |
| Hizkuntza Eskakizuna /Perfil Lingüístico | <input type="checkbox"/> |
| Frogatutako lanbide- datuak/ Experiencia laboral
Laneko Bizi-agiriaren Vida laboral | <input type="checkbox"/> |
| Enpresa kontratatzailearen ziurtagiria /Certificado de la Empresa | <input type="checkbox"/> |
| Expediente akademikoa / Expediente académico | <input type="checkbox"/> |

Fecha registro / Data registroa



2. ERANSKINA: BERRIRO BAREMATZEKO ETA/EDO AUKERAK ALDATZEKO ESKAERA (LEHENAGO BAREMATUTAKO PERTSONALA)

1. Datu pertsonalak

ABIZENAK		IZENA	
NAN	Bi aldeen fotokopia	Zk.	
JAIOTZE-DATA		Tel.	
HELBIDEA		Sakel.	
HERRIA		LURRALDEA	
PK			

- Lurraldea:** bat baino gehiago markatzeko aukera dago.
- Lanaldia:** bi aukerak markatzen badira eta lanaldi-erdiko postua edo ordezkapena eskainiz gero, hura onartu beharra dago.

Ezarritako aukerak aldatzeko eskaera egiten bada soilik bete behar dira bi atal horiek.

	LANALDI OSOA	LANALDI PARTZIALA
ARABA		
BIZKAIA		
GIPUZKOA		

- Baremoa. Lan-esperientzia:** Haur Hezkuntzako lan-esperientzia soilik hartuko da kontuan. b) kasuan, erantsi ziurtagiria

A) Partzuergoan	B) Bestelako zentroetan
EGUNAK	HIRUHILEKOAK

- Titulu akademikoa:** Markatu gurutze batez. Erantsi kopia konpultsatua. 3 puntu, gehienez.

Titulazio berriak soilik aurkez daitezke (aurretik barematu gabekoak)

Haur Hezkuntzako Maisu-maistra	
Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria	
Hautzaindegiko Teknikari Espezialista	
Gaikuntza/Homologazioa	
Psikologoa	
Pedagogoa	
Psikopedagogoa	
Magisteritzako beste espezialitate bat	

Data eta sinadura

2006-2007 ikasturtean uko justifikatua izan bazinen, adierazi 2007-2008
Ikasturterako lan egiteko egoerara itzuli nahi duzun: Bai Ez



3. ERANSKINA (EZ-BEHARREZKOA) : TITULAZIO OSAGARRIAK (EZ DA BAREMATUKO)

ABIZENAK		IZENA	
NAN			
JAIOTEGUNA		Tel.- zk.	
HELBIDEA		Mugi.	
HERRIA		LURRALDEA	
PK			

- BAREMOAN KONTUAN HARTUKO EZ DEN TITULAZIOA
- PERTSONAL BERRIAK EDOTA AURRETIK BAREMATUTA DAGOENAK AURKEZTU BEHARREKOA, EGOKI BADA, 1 ETA 2. ERANSKINEKIN BATERA, HURRENEZ HURREN.
- BETE EGIN BEHAR DA KONTUAN IZATEKO BERARIAZKO DEIALDIAK EGITEN BADIRA EDO BERARIAZKO LAN-POLTSAK SORTZEN BADIRA HAURRESKOLETAN SORDAITEZKEEN BERARIAZKO BEHARREI EDO HEZKUNTZA-BEHAR BEREZIEI ERANTZUTEKO (ZEINU-HIZKUNTZA...)

_____andereak/jaunak, adin nagusia
eta _____N.A.N zenbakidunak, zinpean zera diot:
Haurreskola Partzuergoko hezitzaileen plazak eta ordezkapenak betetzeko deialdiko 3.2 atalean azaltzen
diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Eibar, 2008ko _____aren ____a

Sinadura;